

ERASMUS KAUNAS 2024 AUTUMN SEMESTER

Kaixo, Haimar Larrinaga naiz, eta 2023-2024 kurtsoko lehen lauhilekoan egin dut nire Erasmus Kaunasen. Elektronika Industrial eta Automatikako graduaren hirugarren kurtsoren lehenengo lauhilekoa, hain zuzen ere.

Lehenik eta behin, esan beharra daukat Kaunasen emandako bost hilabeteak primerakoak izan direla. Zalantzatan bazaude, animatzen zaitut Erasmusera joatera, egonaldian jende zoragarria, beste kultura bat eta beste bizimodu berri bat ezagutuko baituzu.

Lehenengo egunak

Hasieran aprobetxatu "Welcome Week"-era hurbiltzeko. Unibertsitateak hainbat jarduera antolatzen ditu: LED festa, Kaunas hiriko tourra... Hitz egin jendearekin, unibertsitatea ikusi eta... aprobetxatu eguzkia.

Atera ezazu ISIC txartea, deskontu ugari izango dituzu aisialdian.

Deskargatu Bolt aplikazioa: taxi beazalakoak dira, baina merkeagoak

Deskargatu ZioGas aplikazioa, hiriko autobusa hartzeko

Kaunas

Kaunas 300.000 biztanle inguruko hiria da. Esaten ohi dute, herrialdearen barruan hiri lituaniarrena dela. Jendea berten oso serioa dela diote, baina egia esanda, denetarik dago. Hasieran lotsagarriagoak izan daiteke hemegoekin konparatuta, baina gero irekitzen dira.

Gasteizekin konparatuta hiri hotza da, abendu eta urtarrilean -5°C eta 1°C artean egiten zuen. Tenperaturarik baxuena -20°C izan zen, baina bakarrik pare bat egunetan zehar. Elurrari dagokionez, bertako jendeak esan digu urte hau berezia izan dela eta ez duela elurrik asko egin. Hale ere, hainbat egunetan elurra egin digu. Kaunas hiria ibai batek zeharkatzen du, Nemunas ibaia. Horren inguruan parke handiak daude paseatzeko, korrika egiteko, edota atsedean bat hartzeko.

Janaria Lituaniar patataz eta zopaz beterik dago: patatak haragiz beteak, erremolatxa, oilaskoa... Postre modukoak badaude ere bai, sakotis izenekoa, esaterako.

Hizkuntza nahiko zaila da, baina nahiko berezia ere bai. Bertekoei gustatzen zaie hitzen bat Lituaniarrez esaten saiatzen bazara. Azken finean, ahalegina egiten baduzu, hainbat hitz edota espresio ikasiko dituzu.

Hiri honek garraio sare ona du. Autobusak eta trolleybusak hartzeko aukera ematen du, eta ordutegiak zehaztasunez betetzen dute.

Unibertsitatea

Kaunasen hainbat unibertsitate daude : VDU, KK, LSMU, KTU... Azken hori izan da nire unibertsitatea bost hilabete hauetan : Kauno technologijos universitetas. Pertsonalki ez nuen izan ikasgaiak konbalidatzeko arazo handirik, nahiko antzekoak zirelako. Klaseei dagokionez, hasieran, bertaratzea nahitaezkoa dela esaten dute, baina, egia esan, ez dute kontuan hartzen notak jartzerako orduan, laborategi praktiketakoak izan ezik, horiek garrantzitsuak baitira. Azterketak ez dira oso zailak, eta gehienbat test modukoak izan dira. Gainera, azterketa bat suspenditzen baduzu, bi aukera gehiago dituzu gainditzeko.

Bizilekua

Nire gomendia da unibertsitateko erresidentzietara joatea. Aukerarik hoberenak Dormitory 8 eta Dormitory 10 dira. Nik 8.ean egon nintzen, 5 solairuko eraikina. Erresidentzia honetan logela guztiak bikoitzak dira. Solairu bakoitzean 2 sukalde daude. Sukaldeak beste 18 pertonekin erabili behar dituzu, eta normalean zikin daude. Gainera, lehen solairuaz aparte, beste guztietan labezomorro ugari zeuden. Hasieran nazka handia ematen dute, baina pare bat aste pasata ohitzen zara. Dormitory 10ak, 8.ak ez bezala, banakako logelak baditu.

8. logelako punturik onena, 10ean ez bezala, jendearekin gehiago sozializatu dezakezula da, zalantzarik gabe. Logela familiarragoa eta atsegina da, eta herrialde askotako jendea ezagutzeko aukera ematen du. Beti aurkituko duzu norbait hall-ean edo solairuko korridoretan.

Erresidentzia guztietan kanpotik jendea zar dezakezu, betiere gaueko 12ak baino lehenago "guest" txartela bueltatzen badute. Hala ere, pertsona hori zurekin gaua pasatzea nahi baduzu, aurrez aurretik dorkeeperrari adierazi behar diozu.

Besteak

Erasmusean bizitza guztiz ezberdina da. Denbora libre gehiago duzu gustuko dituzun gauzak egiteko. Kirola egiteko, tabernara lagunekin joateko, bidaiatzeko...

Lehendabizi kirola egiteko aukera asko dituzu Kaunasen. Unibertsitateak hainbat kirolean aritzeko aukera ematen du (banakako zein taldeko kirolean). Bestetik gimnasio propio bat badu, 7. Logelan dago kokatuta dago, eta doan da. Bestetik, hirian zehar hainbat gimnasio pribatu daude. Kanpusetik hurbil hainbat parke daude korrika edota kalistenia egiteko.

Bestetik, Kaunasek bestelako jarduerak egiteko aukera ematen du: Ledo Arenan izotzean patinatzeko, Spa-etara joan eta lasaitzeko... Herrialde honetan saskibaloia oso maitea da. Hiriko taldea, Zalgiris da. Zalgirio Arenan jokatzen du eta batez ere, Euroligako partidak oso giro atsegina dute. Sarrerak ez dira oso garestiak (14 euro ingurukoak ez dira sarrera txarrak), eta Lituaniako Ligakoak, 6 euroren truke partida ikus dezakezu.

Gauean ateratzea gustuko baduzu, hainbat leku daude garagardo edota kopa batzuk hartzeko. Asteartetan Karaoke bat dago. Gainera bi diskoteka daude, eta musika elektronikoa jartzen duten beste hiruzpa toki.

Amaitzeko, Kaunaseko aireportutik hanbait hegaldi ateratzen dira egunero. Horietako asko ez dira oso garestiak eta Europako hainbat herrialde ezagutzeko har ditzazkezu. Bidaiatzea gustatzen bazaizu, aprobeixatu. Lituaniako hainbat herri bizitatzeko oso gomendagarriak dira ere bai, oso bitxiak eta bereziak baitira.

Edozein galderarik izatekotan, idatzi korreo bat:

hlarrinaga002@ikasle.ehu.eus